



GARDENTASUNAREN ATARIA

1.- SARRERA

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasun, informazio publikoa lortu eta behar bezala gobernatzeari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehenengo Tituluko xedapenak honako merkataritza-sozietateei aplikatuko zaizkie: sozietatearen kapitalean herri-administrazioen edo beste herri-erakunde batzuen partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 50etik gorakoa duten horiei. OARSOALDEA, S.A. (aurrerantzean, OARSOALDEA) eskualdeko lau Udalek (Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriak) osatutako konpainia da eta guztien artean beren titulartasuna sozietatearen kapitalaren 100eko 100a da. Ondorioz, OARSOALDEAri Legea aplikagarria zaio.

2.- ERAKUNDE-, ANTOLAKETA- ETA PLANGINTZA-INFORMAZIOA

A.- OARSOALDEAREN FUNTZIOAK

OARSOALDEA irabazi-asmorik gabeko eskualdearen garapen-agentzia bat da eta tokiko herri-sektorearen barruan sartzen da. Eskualdeko lau Udalek 1993. urtean eratu zuten eta sozietatearen estatutuen bigarren artikuluari jarraiki, eskualdearen garapen sozioekonomikorako eta biztanleen bizikaltatearen hobekuntzarako bideratuak dauden zereginak eta jarduerak burutzea du xede.

Sozietatearen helburua betez, OARSOALDEAK lan-orientabidearen, prestakuntzaren, enpresa-sorreraren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazioen, hiri-birgaitzearen eta abarren eremuetan zerbitzuak eskaintzen dizkie partikularrei. Era berean, enpresek zerbitzuak jasotzen dituzte honako arloetan: langileak hautatzea, finantzaketa, industria-lurzorua, enpresa-kudeaketa, etab.

B.- Araudi aplikagarria

OARSOALDEA sozietate anonimoa da eta, nagusiki, Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuek nahiz Kapital Sozietatei buruzko Legeak, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoak, xedatutakoaren arabera arautzen da.

Kontratazioaren arloan, OARSOALDEARI Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoa, aplikagarria zaio, 3.1.d artikuluan xedatutakoarekin bat.

Kontratuak esleitzearen eremuan, OARSOALDEAK herri-administrazioaren izaera ez duen esleipen-ahalmena duenez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen barruan III. Liburuko I. Tituluari dagokion II. Kapitulua aplikatuko zaio. Halaber, Kontratatzaileraren Profilean argitaratuak dauden Kontratazioarako Barne Argibideei erreparatuko zaie.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat, OARSOALDEAK sinatzen dituen kontratuak, herri-administrazioarekin egindakoak izan ezik, kontratu pribatuak dira eta ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu.

C.- Antolaketa-egitura

OARSOALDEAK estatutuetan aurrez ikusi ostean, hurrengo organo kolegiatuak ditu:

- 1.- Lau Udal bazkideek osatutako Batzar Nagusia. Bakoitzak sozietatearen kapitalaren %25a du.
- 2.- Modu berean, lau Udal bazkideek osatutako Administrazio Kontseilua. Une honetan burutza Erretereriako Udalak eta idazkaritza Lezoko Udalak dute.

Estatutuz aipatu organo kolegiatuez gain, sozietateak zuzendari nagusia du eta kargua Fernando Nebreda Díez de Espada jaunak, Zuzenbidean lizentziatuak eta enpresen administrazioan nahiz kudeaketan masterra duenak, betetzen du. OARSOALDEARA iritsi baino lehen, Debegesan, Debabarreneko Garapen Sozioekonomikorako Sozietatean, lan egin zuen. Fernando Nebreda jauna OARSOALDEA, S.A. 1993. urtean sortu zenetik da zuzendari nagusia.

Zuzendaritza Nagusipean honako Zuzendaritzak daude:

- "Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Estrategia" Saileko Zuzendaritza, zeinaren lanpostua Beatriz Brosa Gómezek betetzen du.

- "Pertsoneri Arreta" Saileko Zuzendaritza, Patxi Arrazola Soto jaunaren
- "Oarsoaldea Helmuga" Saileko Zuzendaritza, Eider Calderón García.
- "Hiri-Berriztapena eta Mugikortasuna" Saileko Zuzendaritza, Ainara Lasarte Urquia.
- "Euskara" Saileko Zuzendaritza, Joxe Luix Agirretxe Mitxelena jauna.
- "Kontsumitzailearentzako Informazioa" Saileko Zuzendaritza, Anabel Sarasola Etxegoien.
- "Antolakuntza eta Zeharkako Elementuak" Zuzendaritza Bakartxo Villar Iraola.

Oarsoaldeko zerbitzuak 7 sailetan banatuta daude:

EKONOMIA ETA LURRALDEAREN GARAPENEN ESTRATEGIA: berrikuntza eta garapen teknologikoaren arloan enpresak dinamizatzeko eta laguntzeko dauden tresnak indartzea, eta enpresen eta berrikuntzaren arteko interakzioa ahalbidetzea, ekipamendu espezializatuen eta azpiegitura partekatuen bidez.

PERTSONEI ARRETA: Oarsoaldeko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea enpleguaren, gizarteratzeko eta laneratzeko programen eta kontsumo arduratsuen bidez.

OARSOALDEA HELMUGA: Oarsoaldea eskualdea lehentasunezko eta kalitatezko helmuga bihurtzea, gure kultura-nortasunean eta gure turismo-enpresen lehiakortasunean oinarrituta; enplegua eta aberastasuna modu orekatuan sortzen lagunduko duen turismo-eredu jasangarri baten bidez, bai eremu geografikoan, bai aldi baterako eremuan.

EUSKARAREN SUSTAPENA: sail honen helburua eskualdeko hainbat eremutan euskararen ezagutza eta, batez ere, erabilera areagotzea eta sustatzea da.

HIRI-BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA: lehendik dagoen ondare urbanizatua eta eraikia egokitzea eta hobetzea bultzatzen du, batez ere birgaitze pribatuko obretan herritarrei laguntzen dieten finantzaketa-bideak bereganatuz eta kudeatuz, bai eta mugikortasun jasangarria sustatuz ere, eskualdeko bidegorrien sarea garatuz eta eskualderako garraio publikoaren udalaz gaindiko estrategiak koordinatuz.

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA: helburua kontsultei eta erreklamazioei erantzutea da, eta, horretarako, informazio-, bitartekotza- eta Arbitrajera edo Ikuskaritzara eramatea.

ANTOLAKUNTZA ETA ZEHARKAKO ELEMENTUAK: sail horiek erakundearen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren barne-arloak osatzen dituzte: arlo ekonomiko-finantzarioa, giza baliabideak, kalitatea, komunikazioa, berrikuntza, informazio-sistemak, instalazioen mantentze-lan zuzentzailea eta prebentiboa eta ekipamendua.

3.- EKONOMIA, AURREKONTU ETA ESTADISTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA

A.- 2020. urtean egindako kontratuak (2020eko urritik abendua bitartean)

Erosketak zuzeneko esleipenaren bitartez (18.000 eurotik beherakoak):


Prestakuntza	200,76
Telefonoak	6.932,12
Garraioa eta mezularitza	138,91
Bulegoko materiala	2.246,97
Alokairuak	6.998,78
Publizitatea eta propaganda	19.866,74
Zerb. profesional indepen.	94.217,11
Hornidurak	7.442,59
Konponketa eta kontserbazioa	12.092,66
Garbiketa	8.040,26
Beste gastu batzuk	14.790,84
Langabetuentzako prestakuntza-ikastaroak	3.355,36
GUZTIRA	176.323,10

15.000 eurotik gorako erosketak: (prozedura negoziatua – 3 eskaintza eskatzea):

Epe honetan ez da eman.

DATU ESTADISTIKOAK

PROZEDURA	AURREKONTU-BOLUMENA	%
Zuzeneko esleipena	176.323,10	100%
Prozedura negoziatua	0	0%



B.- 2020. urtean sinatutako hitzarmenak (2020eko urritik abendua bitartean):

OARSOALDEAK HITZARTUTAKO OBLIGAZIO EKONOMIKOAK			
SINATZAILEAK	XEDEA	EPEA	ZENBATEKOA
MERKA PASAIA OIARTZUN SC	PIZGARRI 2020 20200090	2020/12/1	3.829,65
		2021/9/29	

C.- 2020. urtean emandako diru-laguntzak eta laguntzak (2020eko urritik abendua bitartean):

Ez dira egon epealdi honetan

D.- 2020. ekitaldirako aurrekontua.

GARAPEN EKONOMIKO ARLOA

EKONOMIA ETA LURRALDEA GARATZEKO ESTRATEGIA

	KOSTUA
ITSAROARI LOTUTAKO EKONOMIA BULTZATZEA	61.811,31
INDUSTRIA GARA ETA BERRI DADIN SUSTATZEA ETA HORRI LOTUTAKO ZERBITZUAK	713.720,01
GUZTIRA	775.531,32

PERTSONEI ARRETA

	KOSTUA
PERTSONEI EMANDAKO ARRETA, AUKERA-SEKTOREA	113.032,87
GIZARTE-EGOERA AHULENEKO KOLEKTIBOEN GIZARTERATZEA ETA LAN-MUNDURATZEA SUSTATZEA	1.878.248,41
GUZTIRA	1.991.281,28

OARSOALDEA HELMUGA

	KOSTUA
SEKTORE TURISTIKOA, ESQUALDEAREN ERAKARGARRITASUNA DUELA ETA POTENTZIALA DUEN JARDUERA. MERKATARITZA, ALIATU	540.471,96

UDALEI ZERBITZUAK EDO ELKARLANEAN EGINDAKOAK

	KOSTUA
HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA	151.592,28
EUSKARA	147.414,05
KONTSUMITZATILEARI ARRETA	109.147,58

GUZTIRA 3.715.438,47

KANPO FINANTZ.	UDALAK			
	ERRETERIA	LEZO	OIARTZUN	PASAIA
37.444,68	3.529,41	3.351,99	3.382,25	14.102,98
329.684,22	162.860,66	73.436,02	71.854,19	75.884,91
367.128,89	166.390,07	76.788,02	75.236,44	89.987,90

KANPO FINANTZ.	UDALAK			
	ERRETERIA	LEZO	OIARTZUN	PASAIA
1.245,06	17.033,61	29.981,02	31.050,63	33.722,54
1.256.283,81	248.018,64	100.975,14	115.861,51	157.109,30
1.257.528,88	265.052,25	130.956,17	146.912,15	190.831,84

KANPO FINANTZ.	UDALAK			
	ERRETERIA	LEZO	OIARTZUN	PASAIA
82.214,75	235.406,91	56.955,50	72.406,23	93.488,57

KANPO FINANTZ.	UDALAK			
	ERRETERIA	LEZO	OIARTZUN	PASAIA
1.601,60	43.438,52	18.762,57	51.025,98	36.763,61
0,00	54.509,42	25.243,58	30.666,91	36.994,14
41.186,37	30.108,70	9.062,81	11.608,40	17.181,29

1.749.660,49 794.905,88 317.768,65 387.856,11 465.247,35

2020KO OARSOALDEAREN AURREKONTUA PARTIDEN ARABERA.

Nominak	1.565.856,91
Gizarte Segurantza	483.962,32
Bidai gastuak	32.050,00
Prestakuntza	2.838,66
Program Informatikoak	21.572,10
Informatika elementuak	61.828,82
Instalakuntza	0,00
Altzariak	23.703,75
Finantza gastuak	53.907,00
Telefonoak	3.725,50
Mezulariak	23.548,00
Bulego materiala	19.322,03
Publizitatea, propaganda eta kanpainak	8.421,00
Errepresentazio gastuak	12.745,90
Suskripzioak	318.695,60
Aholukariak	13.096,25
Hornidurak	31.388,30
Mantenua eta konponketak	13.305,60
Garbiketa	1.025.470,73
Beste gastuak: ikastaroak, enplegu programak, kanpainak	3.715.438,47
	1.565.856,91

AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA 2020/12/31ean

ARLOA	URTEKO AURREIK.	GAUZATZE MAILA 2020/12/31	%
EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPEN ESTRATEGIA	649.909,84	742.488,49	114%
PERTSONEI ARRETA	2.240.485,18	1.704.967,07	76%
OARSOALDEA HELMUGA	518.915,90	518.826,39	100%
HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA	151.318,33	139.377,47	92%
KONTSUMITZAILEARI ARRETA	121.991,97	101.185,52	83%
EUSKARA	190.861,85	192.825,65	101%
	3.873.483,07	3.399.670,60	

Gauzatze maila altuagoa lortu da hasierako aurrekontuetan espero ez ziren dirulaguntzak jaso direlako.

F.- 2019ko urteko kontuak eta ikuskaritza-txostena. (2019ko urteko kontuen link)